

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa: Errendimendua eta sustapena uztartzen dituen eredua

(Basque Pelota Federation of Gipuzkoa: A model to develop performance and promotion)

Usabiaga Arruabarrena, Oidui
UPV/EHU. Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzien Fak.
Lasarteko bidea, zg. 01007 Gasteiz
oidui.usabiaga@ehu.es

BIBLID [1137-4447 (2006), 15; 143-151]

Jaso: 06.10.23
Onartu: 06.11.24

Kirol federazio baten zereginak goi errendimenduko helburuekin erlazionatu ohi dira. Azken hamarkadetan, ikuspegi honek aldaketa nabaria jasan du eta beste hainbat kirol-esparruri ere berebiziko garrantzia eskaini zaio. Gipuzkoako Euskal Pilotako Federazioa kirol alderdi ezberdinen arteko oreka mantentzen salatu da eta modu honetan, goi errendimenduko asmoak, hastapenekoak zein sustapenekoak proiektu orokor baten barnean bildu dira.

Giltza-Hitzak: Kirol federazioa. Sustapena. Hastapena. Errendimendua.

Las tareas de una federación deportiva suelen relacionarse con objetivos de alto rendimiento. Esta perspectiva ha sufrido un cambio notable en las últimas décadas y se ha otorgado gran importancia a muchos otros ámbitos deportivos. La Federación de Pelota Vasca de Gipuzkoa ha procurado mantener el equilibrio entre los diferentes aspectos deportivos y, de esta manera, los proyectos de alto rendimiento, tanto de iniciación como de promoción, han quedado reunidos dentro de un proyecto general.

Palabras Clave: Federación deportiva. Promoción. Iniciación. Rendimiento.

Les tâches d'une fédération sportive sont liées à des objectifs de haut rendement. Cette perspective a souffert un changement notable au cours des dernières décennies et l'on a octroyé une grande importance à de nombreux autres domaines sportifs. La Fédération de Pelote Basque de Gipuzkoa a tenté de maintenir l'équilibre entre les différents aspects sportifs et, de cette façon, les projets de haut rendement, tant d'initiation que d'promotion, ont été réunis dans un projet général.

Mots Clés: Fédération sportive. Promotion. Initiation. Rendement.

1. SARRERA

Idatzi bat galdera sorta batekin hasteak dituen arriskuak ezagutu arren, gero erantzun gabe uztearenak alegia, kirolari peto-petoean moduan lehiakorra izaten saiatuko naiz: zeintzuk dira kirol federazio baten zereginak edo helburuak? Kirol federazioek zein filosofia darabilte kirolaren hastapena, errendimendua edo sustapena jorratzean? Nola kudeatu daiteke kirol alderdi hauen arteko oreka eguneroko jardunean?

Kirol jardueren inguruan lan egiten dugunok aurrez formulatutako galdera hauen erantzunak argi izan behar genituzke, are gehiago, gai hauen inguruko hausnarketa sakona egin eta denok bide beretik jo behar genuke. Kirol jardueran, hastapena, errendimendua eta sustapena alderdiek trataera ezberdina izan arren, guztien arteko oreka mantentzeak berebiziko abantailak ekarriko lizkioke gizarteari.

Kirol federazio ezberdinek teknikari profesionalak (besteak beste, kirolaren eta jarduera fisikoaren zientzietan lizentziatuak) langile moduan hartu dituzten heinean, erakunde hauen egiturapean jorratu ohi diren arloen zerrenda handia-gotuz joan da. Garrantzitsuenen artean ondorengoak aipa daitezke: eskola kirola, lehiaketa, kirol federatua, emakumea eta kirola, partaidetzako kirola, behar bereziak dituzten pertsonentzat egokitutako kirola, formazioa, osasuna, ikerketa eta euskara.

Kirol arloak ugaritzeak hainbat abantaila sor ditzake eguneroko jardunean, pertsona gehiago kirola egitera animatzeaz gain (haurrak, gazteak, helduak, gizon-ekoak, emakumezkoak, behar bereziak dituztenak,...), kirola modu dibertigarrian, osasuntsuan, hezigarrian, lehiakorrean egiteko aukera landuagoak eskaini ahal izango dira. Era berean, eduki hauek federazioen ardurapean jartzeak izan ditzake hainbat desabantaila, bereziki, eguneroko jardunean giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen beharrak oinarritzko funtzionamenduan sor ditzakeen eragozpenak.

Kirol federazio batzuek azkenaldian jasan duten eraldatzearen erakusgarri Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak azken urteotan jorratu duen ibilbidea adibidetzat jarri nahi nuke. Kirol federazio honek egokitzapen handiak burutu behar izan ditu, beti ere, gaur egungo gizarteak eskatzen dituen arloei erantzun ahal izateko. Erronka berriei heltzea ez da batere samurra izaten, tradizioaren bide bakarretik aldentzen diren kirol proiektuek ezinegon eta aurkako jarrera ugari sortu ohi dute, baina helburu interesgarriak zein aberatsak dituen ereduaren bila dabilen federazioari bere bidea egiten utzi behar zaio.

2. GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOAREN EREDUA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan sarreran adierazitako alderdien eta arloen oreka mantentzeko ahaleginak egin dira. Hau da, kirol hastapena, sustapena eta errendimendua uztartuko dituen eredia sortu eta garatu da (Etxeberría

et al., 2005). Egitura honetan, eduki berriak landu ahal izateko, teknikarien etengabeko formazioa bilatu da, esparru ezberdinetan espezializatuz. Aurrekontuen alorrean ere, alderdi ezberdinak abian jarri eta garatzeko diru iturriak bilatu dira. Goi errendimenduko eta kirol sustapeneko diru iturrien jatorria ez da berdina, helburuak ezberdinak diren heinean, diru sarrerak ere desberdinak izan ohi dira. Hala ere, goi errendimenduko kirol proiektuekin alderatuz (lehiaketa, selekzioak), euskal pilotaren kasuan, askoz ere gehiago kostatu ohi da partaidetzako kirola, kirol egokitua edo parte hartze urria duten jokamoldeak indartzeko proiektuak bultzatzeko dirua lortzea.

Kirol filosofia honen adierazgarri, ondorengo puntuetan gaur egun Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan dauden proiektu ezberdinen edo arlo ezberdinen oinarrizko ezaugarriak zehaztu dira, hurrenez hurren, kirol errendimendua, kirol hastapena eta kirol sustapena alderdiak zehaztuz.

2.1. Kirol errendimendua

Edozein federazioren eguneroko funtzionamenduan gertatu ohi den moduan, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan ere, esparru garrantzitsuenen artean kirol errendimendua aipatu behar da. Alderdi honen barnean hainbat arlo jorratu dira, besteak beste, kirol federatua, jokamolde ezberdinetako lehiaketa eta Gipuzkoako selekzioa.

Errendimendura bideratutako lehiaketari dagokionez, jokamolde bakoitzean pilotarien joko-mailaren arabera lehiaketa sistemak eratu dira, beti ere, jokamolde ezberdinen arteko oreka mantenduz. Modu horretan pilotari bakoitzak bere mailako norgehiagokak jokatzeko aukera du. Pilotarien formakuntza bermatzeko, elkarteen azpiegitura teknikoa bultzatu da. Horrez gain, Gipuzkoako epaile kolegioa eta teknikarien kolegioa eratu eta garatu nahi dira. Gipuzkoako Selekzioari dagokionez, antolaketa orokorra eta pilotarien prestakuntza hobetu da, entrenamendu sistematizatuagoak gauzatuz.


Gaur egun, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan hainbat jokamoldetako lehiaketak jarri dira abian. Datuak errazago ulertzeko, jokamoldeak multzotan bildu dira eta ondorengo partehartzea dute (ikus 1. irudia):

- **Eskupilotako jokamoldeak** (%65a): ezker horman eskuz binaka, 4 $\frac{1}{2}$ -a eta buruz burukoa dira nagusi, nahiz eta trinketeko jokamoldeek ere (eskuz binaka eta buruz burukoa) bere indarra izan.
- **Palako jokamoldeak** (%22,5a): kasu honetan ere, ezker hormako jokamoldeetan parte hartzea handiagoa da, hau da, gomazko paletan, larruzko paletan, pala motzean eta palan. Instalazio gabeziagatik edo, trinketean pala zabalean eta larruzko paletan dauden izen emateak nahiko urriak dira.
- **Xisterako jokamoldeak** (%11,5a): frontoi luzean binakako zesta puntak du partehartze handiena (%8a), plaza libreko eta frontoi motzeko joko garbiak (%2,5a) zein erremonteak (%1a) partaide gutxiago dituzte.
- **Xarea jokamoldea** (%1a). Gainerako jokamolde multzoekin alderatuz,

dudarik gabe, gaur egun Gipuzkoan partehartze urriena duen jokamoldetako bat da.


- **Errebotea jokamoldea (%2a):** neguan joko garbian parte hartzen duten pilotariek jardun ohi dute udarako jokamolde honetan.

1. irudia. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan jokamolde multzo ezberdinetako parte hartzearen portzentaiak



Lizentzia kopuruari dagokionez, 2003-2004 denboraldian 1745 pilotarik parte hartu du federazio honetan, beti ere, epaileak eta txapelketa herrikoian parte hartu dutenak zein infantilak kontuan izanda (ikus 2. irudia). Pilotari hauek 62 elkartetan banatuak daude.

2. irudia. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan parte hartzen duten pilotari taldeen portzentaiak. Mailaketa kategoriaren arabera eta lizentzia motaren arabera zehaztu da



Pilotarien teknifikazioari dagokionez, 2004-2005 denboraldian 84 pilotarik parte hartu du. Pilotarien eta gurasoen formazioa helburu nagusitzat duen teknifikazioan hainbat eduki jorratu dira, beti ere, prestakuntza fisikoa, psikologikoa eta tekniko-taktikoa lantzerantz bideratuak. Infantiletatik hasi eta hogeitabi urtez azpiko kategorian arte, pilotariek hamabostaldian behin bi orduko saioa burutu dute, denboraldian zehar asteburu bateko elkartzea eginez. Horrez gain, mediku miaketan bidez parte hartu duten pilotarien osasuna kontrolpean izan da.

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan, kirol errendimenduaren alorrari dagokionez, eskupilotako jokamoldeak jaun eta jabe dira partehartzeari dagokionez (%65a). Lehiaketa irekia ongi antolatua eta mailakatua eskaini da, baina, federatu mailan emakumezkoen partehartzea urria da (%2a) eta izan duen geldialdiari erantzun asmoz Emakumearen Batzordea eratu da, besteak beste, lehiaketa interesgarriagoa eta erakargarriagoa eskaini nahi da.

2.2. Kirol hastapena

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren jardunean berebiziko garrantzia duen alderdia da kirol hastapena. Jorratu diren arlo nagusien artean, eskola kirola, elkarrekin berregituratzea, begiraleen formazioa eta jokamolde ezberdinen arteko orekatzea aipa daitezke.

Eskola kirolaren esparruari dagokionez, pilotan jolas sistema hedatu eta elkarrekin ezberdinen antolaketa berregituratu da. Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol hastapenerako duen planteamendu orokorrari jarraiki (ikus 1. taula), bereziki eskola adinekoentzako Pilotan Jolas sistema erabili da. Joko sistema honek ondorengo oinarritzko ezaugarriak ditu: hiru ikasle osatutako taldeek parte hartuko dute, partida berean bakarka eta binaka jardungo dute, kintze eta joko sistema erabiliko da, sake-errestoko distantziak adinaren arabera egokitu dira eta adin bakoitzerako pilota egokiak (goxoak) erabili dira. Joko sistema honek dituen arauen egokitasuna aztertzeko eta sistema bera hobetzeko ikerketa proiektu bat jarri da abian (Usabiaga et al., 2005).

1. taula. kirol hastapenari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren planteamendu orokorra

Kategoria	Adina	Edukia	Izaera
Benjaminak	8-9 urte	Kirolaniztasuna 5 kirol mota	Eskola kirola
Alebinak	10-11 urte	Kirolaniztasuna 3 kirol mota	Eskola kirola
Infantilak	12-13 urte	1 edo 2 kirol Kirol 1	Eskola kirola Hezi Jolas / Errendimendua
Kadeteak	14-15 urte	Kirol 1	Kirol federatua Eskola kirola

Elkarteen berregituratzeari dagokionez, eskola kirolari arreta berezia eskaintzeko prozesua ireki da. Proiektu honen bidez, elkarteen, ikastetxeen eta udaletxeen arteko harremanak uztartu eta ikasleei eman ohi zaien formazioaren kalitatea hobetu nahi da.

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan, kirol hastapena jorratzeko modua Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpideekin bat dator. Kirol hastapena lantzeaz gain, kirola sustatzeko asmoa du. Kasu honetan, zorionez, emakumezkoen partehartzea kirol federatuan baino handiagoa da (%22a). Eskola adineko ikasleek infantiletatik aurrera errendimendura bideratzeko edo eskola kirolaren egituran jarraitzeko aukera dute.

2.3. Kirol sustapena

Edozein kirol federaziok landu beharreko alderdia da kirol sustapena eta helburu nagusia parte hartzen duenak jarduera honekin ongi pasatzea eta disfrutatzea izan behar du. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak hainbat proiektu jarri ditu abian azken urteotan, garrantzitsuenen artean, Emakumea Pilotari proiektua, partaidetzako kirola eta kirol egokitua aipa daitezke.

Emakumea Pilotari proiektuaren kasuan, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak hainbat akordio lortu ditu Gipuzkoako zenbait udalekin, beti ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesean. Proiektuaren helburu nagusia herri hauetan euskal pilotan emakumeen partehartzea handiagotzea da, zehazki, gomazko pilota eta eskupilota jokamoldeak sustatuz. Proiektu honen bidez, herri bakoitzeko neskek kirol hauetan parte hartuz ongi pasatzea bilatuko da eta horrez gain, eskola kirolarekin eta kirol federatuarekin harremana izateko aukera eskainiko zaie. Gainerako arloetan egin bezala, begiraleen formazioari garrantzia berezia eskaini zaio eta proiektu honetan lan egin nahi duten begiraleek irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko ikastaro trinkoa jaso dute.

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak egin duen beste apustuetako bat partaidetzako kirola edo aisialdiko kirola bultzatzearena izan da. Proiektuaren helburu nagusia, federatu gabeko kirolarien parte hartzea sustatzea da. Proiektu hau garatzean, akreditazio herrikoia sortu (akreditazio honen bidez aseguru eta euskal pilotan modu egokian jarduteko gomendioak jaso ohi dira), sustapena lantzeko jokamoldeak hautatu (ezker horman, gomazko paleta eta eskuz binaka) eta materiala egokitu da (eskuko jokamoldearen kasuan, pilota goxoak erabiliz). Kirolari hauei ere beraiei mailako txapelketa eskaini nahi zaie, lehenengo herri bakoitzean burutuko dena, ondoren eskualdera eta beranduago, Gipuzkoa oso zabalduz.

Kirol egokituaren arloa epe motzean abian jarriko den proiektu baten bidez gauzatu nahi da. Proiektuaren helburu nagusia, behar bereziak dituzten pertsonentzat euskal pilotako jokamolde ezberdinak egokitzea da. Kirol egokitua kudeatzen duen federazioarekin hartu emana izan eta ondoren, kasuan kasu egin beharreko joko-arauen egokitzapenei helduko zaie.

2.4. Zeharkako arloak: formazioa, osasuna, ikerketa eta euskara

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan gaurdaino gehien garatu den arloeta-ko bat kirol formazioarena izan da. Zehazki, euskal pilotaren ikaskuntza-irakas-kuntza prozesuaren oinarriak finkatu eta eskupilotako jokamoldeetarako plante-amendu sakona eratu da (Egibar et al., 2006). Testu berritzaile honen sorkun-tzan Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Ikaspilotak (gaur egun Xiba deritzana) eta Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeak (gaur egun Kirolaren eta Jar-duera Fisikoaren Zientzietako Fakultatea denak) parte hartu dute.

Formazioaren alorrarekin jarraituz, testugintzari dagokionez, hainbat liburu argitaratu dira azken urteotan, besteak beste, euskal pilotan jarduteko oinarriz-ko aholkuak liburuxka, partaidetzako kirolean parte hartzen dutenei zuzendua (GEPF, 2005a), eskupilotaren irakaskuntza liburuxka, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren pean dauden elkarteetako entrenatzaileei eta eskola kiroleko begiraleei zuzendua (GEPF, 2005b) eta prestakuntza fisikoari buruzko liburuxka, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren pean dauden elkarteetako entrenatzaileei zuzendua (Gutierrez, 2005).

Osasunaren inguruan hainbat jarduera burutu dira, garrantzitsuenen artean, eskupilotako jokamoldeetan parte hartu duten teknifikazioko pilotariei, beraien gurasoei zein elkarteei eskuetako zaintzaren (takoak nola jarri, prebentzio jar-duerak nola burutu,...) eta higiene azturen (beroketaren garrantzia, luzaketak egi-teko modua, elikaduraren oinarritzko irizpideak,...) inguruan eskainitako ikastaro-ak eta euskal pilotan jarduteak dituen eragin osasungarrien inguruko testuak aipa daitezke. Eskuen zaintzaren kasuan, Letamendia medikuak (eskuen zain-tzan espezializatutako medikua) emandako hitzaldiekin aurrera jarraitu nahi da, pilotarien, entrenatzaileen zein gurasoen heziketan berebiziko garrantzia baitu.

Ikerketaren esparrua gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari den arloa da. Azken urteotan hiru proiektu jarri dira abian Gipuzkoako Euskal Pilota Federazio-an (beti ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin):

- Eskupilotako material sintetikoaren sorrera (PIER proiektua), piloten estan-darizazioa lortu nahi da. Honela, pilota egokiagoak eta batez ere, ekonomi-koagoak lortu ahal izango dira.
- Pilotarien zein gurasoen arteko erlazioak ezagutzeko eta aztertzeko proiektuak helburu hezitzailea du (*adimen emozionala eta gurasoen formazioa* proiektua). Errendimenduko ibilbidea egin nahi duten pilotariek eta guraso-ek parte hartu dute.
- Eskola kirolean parte hartzen duten ikasleen jokoa aztertzeko ebaluazio sistemen (EBSIS 1.0 behatzeko tresna) sorreraren bidez, Pilotan Jolas sis-temako joko-araudia egokitu nahi da.

Euskararen arloan ere hainbat jarduera interesgarri landu dira. Plazaratu ditugun testu guztietan euskararen erabilpen egokia bilatu da, hots, euskal pilo-tako euskal terminologia zaindu da. Horrez gain, elkarteei helarazten zaien informazio guztia elebiduna da; hedabideei helarazten zaien informazioa eus-

karaz edo elebidun da; antolatzen diren ekitaldi guztiak, gutxienez, elebidun dira, web gunea elebiduna da eta barne komunikazio ia guztia euskaraz da. Era berean, ikastetxeei helarazten zaien informazio guztia elebiduna da. Abian jarritako ikerketak ere euskaraz landu dira, bide batez, euskal termino berriak sortu direlarik.

3. OREKA LORTZEA ZILEGI DA, EGITURA IDEALA ESKURATZEAN DAGO GAKOAI

Azaletik bada ere, Gipuzkoako Euskal Pilotako Federazioaren jarduna aipatu ostean, idatziaren hasierako galderei erantzuteko momentua iritsi da. Partida 22ra izan eta 21na joan arren, ez naiz kikilduko, jokaldirik arriskutsuenak egiteko prest nago! (erronka berriei heltzeko prest nago!).

Kirol federazio batek ezin du errendimenduko kirola bakarrik jorratu, hori egitea, gizartearen eskaerei eta legez dagozkion funtzioei muzin egitea litzateke. Kirol hastapenak eta bereziki, kirol sustapenak, berebiziko garrantzia duten aroan, kirolaren inguruko erakundeek erronka berri hauei erantzuten saiatu behar dute. Baserritarren antzera, kirol federazioek ere, ereindako haziaren fruituak eskuratuko dituzte, hau da, alderdi batzuen lanketarik gabe ezin izango da emaitza positiborik eskuratu.

Erakundeek, kasu honetan kirol federazioek, alderdi ezberdinen arteko oreka bilatu behar dute, bata bestearen aurretik jarri beharrean. Era berean, alderdi bakoitzean jorratu nahi diren arloak eta bete beharreko helburuak zehaztu behar dira. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren antolaketari erreparatuz gero, hiru alderdiak ongi bereizi dira eta bakoitzari dagozkion arloak ere proiektu ezberdinen bidez zehaztu dira:

- Kirol errendimendua alderdia: kirol federatua (lehiaketa ofiziala), jokamoldeen arteko oreka, teknifikazioa eta Gipuzkoako selekzioa.
- Kirol hastapena alderdia: eskola kirola, elkarteen berregituratzea, begiraleen formazioa eta jokamoldeen arteko oreka.
- Kirol sustapena alderdia: emakumea eta kirola (Emakumea Pilotari proiektua), partaidetzako kirola eta kirol egokitua.
- Zeharkako arloak: euskara, formazioa, osasuna eta ikerketa.

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko partaideon iritziz, aurrez adierazitako antolaketak kirol federazio baten “egitura ideala” osatuko du. Kirol federazio baten filosofiaren irizpide nagusiak zehazten dira bertan, hau da, kirol errendimendua, hastapena eta sustapena lantzeko modua. Egitura honek gizartearen gaur egungo eskaerei erantzun diezaiokeelakoan gaude: errendimenduaren alderdiak lehiaketa antolatua, arautua, epe motzekoa, espezializatua eta entrenamenduaren sistematika nahi duen oro ase dezake, hastapenaren alderdiak berriz, egokitutako kirola, hezitzeko helburua duena, epe ertainera bideratua eta espezializaziorik gabea nahi duena eta azkenik, sustapenaren alderdiak bizi kalitatea, aisia, jarduera libre, irekia (arau aldakorrek edo arautu gabea), epe luzeak eta aniztasuna bilatzen duena ase dezake.

Arlo guztiak jorratzeko, proiektu guztiak abian jarri eta garatzeko, sarreran adierazi bezala, beharrezkoa da lan talde espezializatua bilatzea (edo daukagun lan taldea formatzea). Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, azken urteotan, dauzkan langileak eta berriak formatzeko apustu garbia egin du. Zuzendaritza berriko partaide naizen aldetik, aurreko zuzendaritzaren esfortzu eskerga eta aldaketa prozesu honetan parte hartu duten ezinbesteko teknikarien (Juan Carlos Etxeberria, Iñaki Peluaga, Maider Mendizabal, Igor Gutierrez eta Haritz Zubiaur) lan ikaragarria goraipatu nahi nuke. Pertsona hauek, kirol federazio baten filosofia zehazteaz gain (egitura ideala), oztopoak oztopo, erronka berriei helduz, abian jarri eta aurrera eramateko adorea izan dute. Bejondeizuela denoi!

Zinez, ez dakit 22ra partida irabazi edo galdu dudan, baina, galdera guztiei erantzun diedalakoa nago, eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta ager dadila edozein herriko plazan!

BIBLIOGRAFIA

- EGIBAR, M. et al. *Eskupilotaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesua*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. Argitaratzeaz dagoen liburua.
- ETXEBERRIA, J. C. et al. "Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa: egitura idealaren bila". In: *Kirol Federatua Kongresua*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2005.
- GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA. *Euskal pilotan jarduteko oinarritzko aholkuak*, SS-1355/05. Donostia: Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, 2005a.
- GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA. *Eskupilotaren irakaskuntza prozesua*, SS-1356/05. Donostia: Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, 2005b.
- GUTIERREZ, I. *Eskupilotaren prestakuntza fisikoa*. Donostia: Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, 2005.
- USABIAGA, O. et al. "EBSIS 1.0: eskola-kiroleko adinean dauden pilotarien joko-ekintza deskribatzeko eta aztertze behatzeko tresna". In: *Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Ikerketa I. Kongresu Birtuala*. Gasteiz: Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea, 2005.